

IKASLEEN TXOKOA | 46 |
ZENBAKIA

ELIZATXO IKASTOLA



Clara Campoamor, Espainian sufragio unibertsala ezarri zuen emakumea / II

MAIDER PEREZ ARZAK



Eskia praktikatu zuten lehenengo euskaldunak... / III

ANA DEL CASTILLO

Eta oportetan zer? / IV

MAIALEN GONZALEZ ARBIZU

Euskaldunen irudia / IV

NAHIKARI DIOSDADO

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

ELIZATXO IKASTOLA

Clara Campoamor, Espainian sufragio unibertsala ezarri zuen emakumea

ikasleentzako txokoa

Clara Campoamor izan zen, 1931n onartutako eta lehen aldiz 1933ko hauteskundeetan erabilitako sufragio unibertsalaren bultzatzaileetariko bat; hura izan zen emakumeoi bozkatzeko eskubidea eman ziguna.

Sufragio unibertsala oso garrantzitsua izan zen, hiritar guztiei ematen baitie bozkatzeko eskubidea, legezko mugak kontuan harturik. Errepublikak garaia ziren eta errepublikarren artean ere baziren emakumeak bozkatzarekin ados ez zeudenak; izan ere, emakumeak beraien botoa ematen bazuten, frankistek irabaziko zutela zioten.

Clara Campoamor, 1888ko otsailaren 12an Madrilan jaioa eta 1972ko apirilaren 30ean Lausannen (Suitzan) hila, Espainiako sufragio unibertsalaren eragileetako bat izan zen. Espainiar politikaria izan zen, emakumeen eskubideen defendatzailea.

Zuzenbide ikasketak egin, eta 1924ean lizentziatu zen, Madrilko unibertsitatean. 36 urterekin lortu zuen, abokatuak ziren emakume espainiar gutxietariko bat izatea. Abokatutzan lanean zebilela, Unibertsitateko Emakumeen Elkarte sortu zuen. Bide horretan jarraitu zuen, eta azkenean, pixkanaka politikan sartuz joan zen.

Berak sortu zuen elkarte horretan eta baita beste batzuetan ere, hitzaldiak eman zituen, beti emakumeen eskubideak defendatuz.

Errepublikako gobernuak, hainbat kargu agindu zizkion. Gainera, Emakumeen Errepublikar Elkarte sortu zuen.

1930eko martxoan, gobernuko kide zen lehenengo emakumea izan zen. Geroago, gobernuko kide zela, beste emakume batzuekin batera egin zuen lan; horien artean, Margarita Nelken, Victoria Kent eta Maria Martinez Sierra.

Urte baten buruan, apirilaren 14an, bigarren errepublika hasi zen. Urte berean, urriaren 1ean, Clara Campoamorrek emakumeen eskubidea defendatu zuen,

botoa emateko; horren eraginez, beranduago, Espainiako Konstituzioan onartua izan zen, lehenengo aldiz estatu honetan.

«Tenéis el derecho que os ha dado la ley, la ley que hicisteis vosotros, pero no tenéis el Derecho Natural, el Derecho fundamental que se basa en el respeto de todo ser humano, y lo que hacéis es detentar un poder; dejad que la mujer se manifieste y veréis como ese poder no podéis seguir detentándolo...». Hau izan zen 1931ko urriaren 1ean Diputatuen Kongresuan esan zuena. Hemen, honako hau dio: «Legeak eman dizuen eskubidea duzue, zuek egindako legea, baino ez duzue Eskubide Naturalik; funtsezko eskubidea, gizaki guztionganako errespetua da, eta zuek egiten duzuen, bidegabekeriarekin boterea erabili; utz ezazue emakumea manifestatzen eta horrela ikusiko duzue nola ezin duzuen boterea bidegabekeriarekin erabiltzen jarraitu...». Esandako honekin bultzatu zuen Campoamorrek gaur egun horren garrantzitsua den sufragio unibertsala.

Hala eta guztiz ere, sufragio unibertsala, lehen aldiz, 1933ko hauteskundeetan onartu zen.

Frankoren estatu kolpearen ondorioz (1936), lehenik Frantzi-



Clara Campoamor.

Clara Campoamor: «Uste dut, Errepublikatik irau duen gauza bakarra, nik egindakoa izan dela: emakumeon boto eskubidea»

an, gero Buenos Airesen eta azkenik Suitzan erbesteratu zen. Azken honetan bizi izan zen,

Lausannen hain zuzen, bere heriotzera arte (1972), Frankismoaren eraginez ezin izan baitzuen Espainiara itzuli.

Lausannera 1955ean heldu zen. Lau urte beranduago, eskutitz bat idatzi zuen, eta bertan, honako hau idatzi zuen: «Creo que lo único que ha quedado de la República fue lo que hice yo: el voto femenino». Hemen, egia den gauza bat azaltzen du: «Uste dut, Errepublikatik irau duen gauza bakarra, nik egindakoa izan dela: emakumeon botoa, hain zuzen».

Lehen esan bezala, Lausannen (Suitzan) hil zen, 1972ko apirilaren 30ean, 84 urte zituela. Minbizi baten ondorioz hil zen, baita herri-minaren eraginez ere. Bere gorpua erraustea nahi izan zuen, eta bere errautsak Donostian gelditu ziren, berak nahi izan zuen bezala, bertan bizi izan baitzen bigarren errepublika ezarri zenean.

Beraz, Clara Campoamorri zor diogu gaur egun emakumeok dugun eskubide garrantzitsuetariko bat; eta eskertzekoa da emakumeen eskubideen alde egin zuen lana eta hauen eskubideen defendatzaile sutsua izatea.

EGILEA

Maidor Perez Arzak



Emakumeen errepublikar elkarte.

46
zenbakia

euskara
ari du

Eskia praktikatu zuten lehenengo euskaldunak...

Orain dela 103 urte bost tolosar eta norvegiar batek Tolosako kaleetan eskiatu zutenetik, gaur egun arte, aldaketa asko izan ditu kirol honek.

ESKIAREN hastapena bizi izan zuten lehenengo euskaldunak bost tolosar eta norvegiar bat izan ziren. Hori gertatu zenetik 103 urte pasa dira eta ez dago haietatik inor bizirik. Eskandinavian, elurretan bidea egiteko eski gainean ibiltzea aspalditik izan da ohikoa, baina XIX. mende erdialdean hartu zuen kirol izaera Sadre Northein norvegiarrari esker. European eskia zabaldu zenean, herrialde gehienetan erabilera militarari lotua zegoen, baina Euskal Herrian ez.

XX. mendean, Tolosan paper fabrika ugari sortu ziren. Haietako bat Mustad iltze enpresa izan zen. Lantegi hau Norvegiatik ekarri zuten, eta handik etorritako norvegiarrek Euskal Herriara, hain zuzen Tolosara, euskaldunentzat ezezaguna zen mendi dibertsioa ekarri zuten.

1908ko urtarrilean, Tolosan elurra egin zuenean, langile norvegiarrek eskia zera atera ziren Tolosako kaleetara eta tolosarrak harriturik geratu ziren, gehienek ez zekitelako eskia zer zen, eta zekitenek aldizkarietatik baino ez zutelako ezagutzen. Hori ikusita, Tolosako zenbait gizoni eskia zeko harra piztu zitzaion eta urteko bigarren elurtean eskia zera animatu ziren, Aimond Enebok ingeniari norvegiarrekin batera.

Beranduago, lehenengo txangoa antolatu zuten Lekunberrira eta Aimond Eneboekin batera Policarpo Elozegi, Jenaro Ruiz Azkue, Jose Eizagirre, Isaac Lopez Mendizabal eta Ramon Irastusta tolosarrak abiatu ziren.



Bost tolosar eta norvegiarra, orain dela 103 urte.

Bertan lehenengo pausoak eta birak egiten hasi ziren.

Gipuzkoako lehenengo eski kluba

Urte bat geroago, Ski Club Tolosano elkarteak sortu zuten. Irteerak egiten zituzten Lekunberrira eta Uitzira. Harriak eta elurra pilatuz tranpolinak egin zituzten eta honela txapelketetan parte hartzen hasi ziren. Lehenengo Mundu Gerra eta hurrengo urteetan, elkarre hori geldirik egon zen, baina beranduago berpiztea lortu zuten eta Candanchura bidaiak egiten hasi ziren. Gerra Zibilarekin berriz gelditu egin zen, ondoren klubak 1963 arte martxan jarraitu zuten. Urte horietan, klubaren datuen arabera, 98 gizon eta 47 emakumek osatzen zuten taldea.



Lekunberrin, 1908ko martxoaren 8an.

Eskiatzeko erabiltzen zuten materiala

Garai hartakoek ere ipurdiakoak hartuz ikasi zuten; aldapak igotzea oso gogorra zen ez zegoelako teleskiri. Erabiltzen zuten materiala norberarentzako bakarrik erabil zezaketen, eta lortzea ez zen erreza. Fondoko eskia egiteko bertako arotzek marka ezagunak kopiatzen zituzten, eta honela lizar egurrezko eskiak prestatzen zituzten. Eskia aurrean doblatu ahal izateko ur irakinetan sartzen zuten egurra, botak neurriera egiten zituzten eta loturak botara sopletearekin berotuz akoplatzen zituzten.

Klub hau bi aldiz saiatu zen teleskia jartzen Aralarren; lehenengoan ez zuten lortu martxan jartzea arazo

asko izan zituztelako; bigarrenean, berriz, jarri zuten baina uholdeek eraman egin zuten jarritako guztia.

Bitxia da urte horietan eskiatzeko erabiltzen zuten arropa: gizonezkoek trajea zeramaten eta emakumeek txorkatilarainoko soinekoak.

Gaur egun oso desberdina da, jendeak hotzaren kontrako arropa eramaten du eta denek galtzak eramaten dituzte. Kirol honen inguruan arropa marka asko saltzen dira eta hainbat arropa oso garestiak dira. Eskiak eta botak, noski, eraman behar dira baina, eros daitezke edo aloka daitezke. Loturak ez dira sopleteekin egin behar, aspaldian bezala, baizik eta torloju batzuekin. Azken urteetan kirol hau egitekoan kaskoa erabiltzea aholkatzen da, nahiz eta jende askok ez jantzi, eroso ez delako.

Eski motak eta pistak

Gaur egun, Euskal Herrian fondoko eskia praktikatzeko pistak bakarrik daude:

Nafarroan: Abodi-Zaraitzu (Zaraitzun) eta Larra-Belagua (Erronkarin).

Zuberoan: Irati (Orhin) eta Izarbe (Santa Grazian).

Eskiaren eginkizuna, za-

balera handiko lurrazaletan paseatzea da. Hau egiteko, eskien zabalera bost zentimetrokoa da eta luzera bi metrokoa.

Euskaldunak eski alpinoa egiteko Aragoiko pistetara joaten dira (Panticosara, Formigalera, Astunera, Candanchura...) edo Frantziara dauden pistetara (Gourette, Cauteretsera, Luz Ardiden, La Mongiera...). Hala ere, estatuan pista asko daude eta aukera handia. Urteekin alpinoko estazioak gero eta hobeto prestatu dituzte eta hauek lau pista mota aurki ditzakegu:

1-BERDEAK

- Pista errazak eta malda txikikoak.

- Orokorrean oso laburrak.

- Kirol honetan hasten direnentzako egokienak.

- Erremontek pista hauek motelagoak dira erabiltzailea ez beldurtzeko.

2-URDINAK

- Pista hauek, berdeek baino malda gehiago dute.

- Maila guztietako eskia zaila eta snowboarderrak pasatzen dira; erremontek azkarrago dihoazte.

3-GORRIAK

- Pista zailak dira, maila ertain-altuko eskia zailentzat eta snowboarderrentzako.

- Malda handiko pistak izaten dira.

4-BELTZAK

- Pista oso zailak dira.
- Esperientzia handiko pertsonentzat.

- Zailtasunik handiena, bere malda da, eta baita bere pasabide estuak ere.

- Trebetasun handia behar da birak emateko, ez baita izaten toki askorik.

Ikus dezakegunez 103 urte dira euskaldunak kirol hau ezagutu genuenetik eta urteekin gero eta jende gehiagok praktikatzen dugu.

EGILEAK

Ana del Castillo

Eta oporretan, zer?

GARAI batean deskantsu modukoak ziren langile askorentzat gaur egun «oporrak» deritzonak; aizkora edo kañabera alde batera utzi eta familiarekin tximiniaren aurrean goxo-goxo egoteko denbora. Egun, ordea, hitz horren esanahia badirudi errotik aldatu dela eta oporrik preziatuenak, paradisu tropikaletara egiten direnak direla. Nire ustez, bakoitzaren herritik urruti dagoen herrietara bidaiatu beharko genuke, beti ere, aukera izanez gero, noski. Baina nora? Tibetera edo Hawaiera, Estatu Batuetara edo Indiara? Berdin dio, soilik mundu berri bat ezagutzera.

Hainbat arrazoik bultzatzen naute ideia hori defendatzera. Lehenik eta behin, gure jakinmina leku eta kultura berrietara zabaltzeko ideia defendatzen dut; izan ere, horrek laguntzen digu desberdinak diren pertsonak ezagutu eta haiekiko tolerantak izaten, eta haien bizimodu eta sinesmenak hobeto ulertzen.

Bestetik, munduaren beste puntara ihes egiteak aske sentiarazten gaitu, txikitatik



Milaka herri eta kultura daude munduan zehar, ezagutzeko.

lotuta izan gaituen herritik aske, eta gure baitan bizitzeko eta gauza asko egiteko gai garela erakusten digu. Gainera, pertsonalki ere aberastu egiten gaitu bidaiatzeak, gauza berriei begi positiboekin

begiratzea eta hauei beldurrik ez izatea suposatzen baitu.

Bestalde, lan munduari begira, bidaiatu izanak ere laguntza handia suposatzen du, hizkuntzak hobeto men-

deratu eta mundu gehiago ezagutzen baitugu. Esaten da, bada, ez garela ohera joaten zerbait berria ikasi gabe, hortaz, ez gara bidai batetik bueltatzen gauza berriak ikasi gabe ere.

Azkenik esan beharra daukat, jende askorentzat bidaiatzeak beren ametsak betetzea esan nahi duela, txikitatik gorde eta desiratu ditugun ametsak. Hori ikusita, zergatik ez gure ametsak bete, aukera dugunean?

Beste batzuk, ordea, hau irakurrita, pentsa dezakete bizi dugun krisi ekonomikoa dela eta, ez dugula bidaiatzeko dirurik, baina badira bidai agentziak oso bidai ekonomikoak egiten dituztenak arazok dituztenentzat. Eta mundura irekitzeko beldurra dutenentzat, soilik esan hau gure mundua dela, eta guk ikertu behar dugula.

Ondorioz, defendatzen dut gure jaioterria alde batera utzi eta zenbait astez lurralde arrotz edo basamortuko paisietara ihes egin beharko genukeela, jende eta kultura berriak ezagutzera, mundua leku ederra baita gure jakituria elkarren artean partekatzen badugu. Hori dela eta, zergatik bizitza osoa hemen egon, zain dugunean mundu zabala iker dezagun?

✍ EGILEA

Maialen Gonzalez Arbizu

Euskaldunen irudia

GUK badaukagu gure iritzia beste herrialde eta kulturei buruzkoa, baina nola ikusten gaituzte beste herrialdeetako pertsonak? Zer iritzi dute gure kultura eta ohiturei buruz? Nire ustez, guri buruz duten iritzia edo gu nolakoak garen pentsatzean oso oker daude, errealitatetik nahiko urrun, gehiengo kasuetan. Gu eguneroko bizitzan ez gara konturatzen, baina esaten dudana egia dela frogatuko dizuet.

Hasteko, guri buruz dituzten irudiak eta arrazoiak aipatuko ditut nire tesia defendat-

zeko. Lehenengo eta behin, komunikabideetan dugun irudiaz hitz egingo dut. Tebistan, irrati edo egunkarietan azaltzen garen bakoitzean, edo gehienetan behintzat, politika edo ETari lotuak egoten gara. Honen adibide oso argi bat www.elpais.com web orria da. Notizietan *Euskadi* hitza bilatzean ateratzen diren 2.896 artikuluetatik, hiru laurden, politika edo ETarekin lotuak daude.

Albiste horien ondorioz, guri buruzko oso irudi txarra eratu da, gauzak lortzeko

indarkeria bakarrik erabiltzen dugula uste dute, denok terroristak garela uste dute, eta hori ez da horrela. Esate baterako, nire Salamankako familiako kide batzuek ez zuten Euskadira etorri nahi terroristen eta atentatuen beldur zirelako.

Baina guri buruz dituzten irudiak okerrak diren arren, ez dira beti txarrak izaten, oso barregarriak izaten dira gehienetan. Irudi barregarri hauen adibideak Hollywoodeko pelikula zaharretan ikus ditzakegu. *Desfiladero de*

la muerte pelikulan azaltzen diren euskaldunek zesta puntako saskiarekin harriak botatzen dituzte indioak akabatzen eta irrintzi bitartez komunikatzen dira, hizkuntza bat balitz bezala.

Beste adibide modura, *Vaya Semanita* telebista saioa, geure buruarekin barre egiteko sortua izan zen. Hasieran Euskadin bakarrik botatzen zen, baina orain beste kate batek erosi duenez, Euskadikoak ez diren pertsonak ere ikusten dute, ondorioz, gutaz barre egiten dute eta lagun-

tzen du irudi barregarria indartzen

Laburbilduz, euskaldunei buruz irudi okerrak dituzte gehienetan kanpotarrek; oso irudi txarra edo barregarria izaten dute. Gure irudia hobetzeko ezin dugu gauza handirik egin komunikabideek indar gehiago dutelako. Egin dezakegun bakarra, ezagutzen ditugun edo familia-koak diren atzerritarrei nolakoak garen esplikatu.

✍ EGILEA

Nahikari Diosdado